

ETXE ZAHARRA

Bazen behin, Ameriketari bizi zen familia bat. Familia honetako kideak aita, Ramon izenekoa, ama, Samanta izenekoa, seme txikia, Pablo izenekoa, eta alaba, Maria izenekoa, ziren. Aitak, informatika enpresa batean egiten zuen lan. Eta amak, berriz, etxean. Semeak 9 urte zituen eta alabak 12. Oso zoriontsuak ziren, eta etxe polit batean bizi ziren.

Baina, bapatean, inork ez daki zergatik, aita lanetik bota egin zuten eta hortik ez gutxira aurrezki guztiak amaitu zitzaizkien.

Behartuta egon ziren Ameriketatik ateratzera, eta amak herediatutako Eskoziako mantsio zahar batetara joan ziren. Etxea, egurrezkoa zen eta bere ondoan itsatsirik, garaje zahar bat zuen, trastez bete. Atea handia zen eta "hall-a" oso handia zen. Lurra puskatzeko zorian zegoela zirudien, ñik eta ñak egiten zuen. Etxeak hiru pisu zituen, behekoa, goikoa eta ganbara. Beheran: sukaldea, egongela, jangela... zeuden. Bigarren pisuan: 3 logela, liburutegia, ikasgela eta bi terraza zeuden, eta azkenik ganbaran baliozko gauza asko eta oso zaharrak zeuden.

Mariari, etxe hori, ez zitzaion asko gustatzen. Oso susmo txarra hartzen zion, eta ez da harritzekoa! Esaten zenez orain dela urte asko hor bizi zen andre batek, begikoa bota zion etxe horri; 6 zuzenki esateko, eta hor biziko zen edozein pertsonari 6 zigorrak ezarriko zitzaizkien. Hau zela eta bere izpiritua gauero ateratzen zen, pertsonarik dagoen ikustera. Norbaitekin topo eginez gero 6 zigorrak ezarriko zitzaizkien; guzti hau gutxi izango balitz, bere azkenengo zigorra ezarriko zuen: bere eskuez horko pertsonak hiltzea.

Eta horrela egin zuen. Gau horretan, 11etan, bere izpiritua agertu eta gelaz gela joan zen, begiratzen. Ikusi zuen familia osoa eta, orduan, bere 6 zigorrak martxan jarri zituen.

Maria oso neska espeziala zen. Denbora bere ametsetan ikus zezakeen, hurrengo egunean zer gertatuko zen.

Bitartean, izpirituak bere lehenengo zigorra jarri zuen martxan: "batak bestearekiko gorrotoa". Mariak amets egin zuen lehenengo jazarpenarekin eta hurrengo egunean bere gurasoei esan zien. Baina konturatu zen ez ziotela kasurik egiten ametsean ikusi zuen bezala. Baina berak pentsatzen zuen berak egin zuen gauza bategatik haserretuta egongo zirela. Hurrengo egunean bigarren zigorra ezarri zuen izpirituak: "batak bestearekiko haserrea". Mariak berriz amets hura egin zuen. Hurrengo egunean ikusi zuen denak muturka zeudela eta haserre aurpegiarekin zeuden. Maria pentsatzen hasi zen etxearekin zer ikusia zuela.

Ilargia ikutatzean hirugarren zigorra martxan jarri zuen: "denak gosea pasatzea". Mariak, oraingoa ere, amets egin zuen horrekin.

Eguzkia ateratzean, ez zegoela janaririk ikusi zuen. Egun horretan liburutegira joan zen etxe horri buruzko informazioa bilatzera. Konturatu zen etxe horri buruz ez zegoela ezer. Berandu zen eta Maria etxera joan zen. Denak lo zeudenean beste zigorra jarri zuen martxan: "beraien eguna amets gaiztoa izatea". Mariak horrekin egin zuen amets. Esnatzean denak oso gaizki pasa zuten: beraiei beldur gehiena ematen ziena agertzen zen beraien begi aurrean. Maria etxe agentzia batetara joan zen etxe horri buruz informazioa bilatzera, baina ikusi zuen etxe hori ez zegoela ezta agentzia batean ere. Maria ikaritzen hasi zen eta zigorraren erruduna etxea zela jakin zuen. Korrika etxera joan eta han dena kontatu zien gurasoei. Beraiek esan zioten ezin zutela etxe horretatik joan, ez zutela dirurik. Seigarren zigorra eta azkena: Izpirituak Mariaren familiako kideen gorputzetaz jabetzea izango zen, beren kideak hiltzeko. Mariak horrekin egin zuen amets. Hori jakin ondoren, esnatu eta korrika zihoala korridorean zehar (gurasoei batak bestea defendatzeko esateko) Mariari izpiritua agertu zitzaion eta bere gelara joateko esan zion.

Maria gelara joan zen izpiritua atzean zuela, ohera sartu eta izpiritua joan arte lo itxurak egin zituen. Gero korrika leihotik atera eta mamuetan espezializatutako denda batean sartu zen. Han liburu zahar bat ireki eta izpiritu hori agertzen zen. Han jartzen zuen zein sei zigorrak pasatu arazten zituen. Hortxe jartzen zuen nola inbokatuko izpiritu hori eta zerekin hil. Ondoa zerekin hil behar

zen objetua agertzen zen. Objetu hori eskaparatean zegoen. Mariak hartu eta korrika etxera joan zen. Etxean sartu eta izpiritua inbokatu zuen. Berari aurre egin, eta daga bihotzean sartu zion izpirituari eta berarekin zerikusia zuen gauza guztiak (etxea, daga, 6 zigorrak...) desagertu egin ziren.

Herriko jendea hortaz jabetu zenean herriko alkateak diru asko eman zion familiari etxe hori desagertarazteagatik.

Diru orrekin famia Ameriketara itzuli zen. Beraien etxea berreskuratu, aitaak lana eta gauzak lehen ziren bezala jarraitu zuen izaten.